ZERBITZU ETA HORNIDURAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

I. KAPITULUA 1
KONTZEPTU OROKORRAK..... 1
1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA..... 1
2. KONTRATUAREN XEDEA..... 2
3. BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA 2
4. PREZIOAK BERRIKUSTEA..... 2
5. GAUZATZEKO EPEA..... 3
6. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA 3
II.KAPITULUA 3
LIZITAZIOA ETA ESKAINTZAK PRESTATZEA 3
7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA..... 4
8. PROPOSAMENEN EDUKIA..... 5
III. KAPITULUA 6
9. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA 6
10. KONTRATISTA HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA KONTRATISTA HAUTATZEA 7
11. KONTRATUA FORMALIZATZEA..... 9
IV. KAPITULUA 10
KONTRATUA GAUZATZEA ETA AZKENTZEA.....10
12. KONTRATUA GAUZATZEA..... 10
13. KONTRATUA ALDATZEA..... 10
14. PREZIOA ORDAINTZEA..... ...10
15. EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIK EDO OKER BETETZEAGATIK JARRITAKO ZIGORRAK..... ...11
16. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK 11
17. EGINDAKO LANEN JABETZA, ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN..... ..16
ESKUBIDEAK..... ...16
18. KONTRATUAREN ARDURADUNA.....16
19. KONTRATUA AZKENTZEA/SUNTSIARAZTEA.....17
20. GATAZKAK, EKINTZAK ETA ERREKURTSOAK EBAZTEKO PROZEDURAK, ETA HORIEK EBAZTEKO ORGANO ETA ORGANISMOAK.....17
21. USTELKERIAREN AURKAKO KLAUSULA.....18

I. KAPITULUA
KONTZEPTU OROKORRAK

1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan aipatzen den kontratua kontratu pribatua da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 26.1 b) artikuluari jarraikiz, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa Herri Administrazioa ez den botere adjudikatzailea (HAEBA) den aldetik, eta erregulazio harmonizatuari atxikiko zaio, betiere 9/2017 Legearen 19., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak betetzen badira (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena –hemendik aurrera, "SPKL"–, Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).
Horrenbestez, kontratua honako hauen araberakoa izango da:

- Prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, SPKLaren 115. artikulutik 187. artikulura bitarteko (biak barnean hartuta) artikuluen araberakoa, betiere SPKLaren 317. artikuluan xedatutakoari jarraikiz; Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan xedatutakoaren, Karatulako zehaztapenen eta adjudikaziodunarekin egingo den kontratuan bildutako itun eta baldintzen araberakoa.

- Betetzea, ondoreak eta azkentzea zuzenbide pribatuko arauek gidatuko dute. Horretaz gain, 319. artikuluan dioenez, 201. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrei dagokienez; 202. artikulua, kontratuak egikaritzeko baldintza bereziei dagokienez; 203. artikulutik 205. artikulurakoak, kontratuak aldatzeko kasuei dagokienez; 214. artikulutik 217. artikulurakoak, lagapenari eta azpikontratazioari dagokienez, eta 218. artikulutik 228. artikulurakoak, kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari dagokienez; halaber, aplikatzekoak izango zaizkio 198. artikuluaren 4. apartatuan eta 210. artikuluaren 4. apartatuan ezarritako ordainketa-baldintzak. Era berean, kontratua suntsiarazteko kausa izango da prestazioa hasieran itundutako baldintzetan ezin ematea SPKLaren 204. eta 205. artikuluen arabera kontratua ezin alda daitekeenean, baita 211. artikuluaren i) letran jasotakoa ere.

Agiriaren baldintzaren bat, agiriari erantsitako dokumentuak edo aplikatu beharreko araudia ez ezagutzeak ez du lizitatzailea salbuesten horiek guztiak betetzeko betebeharraz.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea Agiri honetako Karatularen "A" APARTATUAn deskribatutako zerbitzua da, betiere Preskripzio Teknikoen Agirian finkatutako zehaztapen teknikoen arabera.

3. BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren gehieneko prezioa eta kontratuaren balio zenbatetsia Karatularen "C" APARTATUAn aipatzen dira, eta kasu guztietan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) sartu gabe dago.

Kontratuaren prezioa kontratuaren adjudikaziotik ondorioztatzen dena izango da, eta BEZa sartuta izango du, partida independente gisa.

Aplikatu beharreko mota guztietako gainerako tributu, tasa eta kanonak kontratuaren prezioan sartutakotzat jotzen dira, baita Agiri honetan aipatzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz kontratistari sortzen zaizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, etekinak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, bere ardurapeko teknikarien ordainsariak, bisak eta abar).

Adjudikaziodunaren kontura izango dira eta, beraz, ezin izango zaizkio UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari eskatu, kontratua, Preskripzio Teknikoen Agirian xedatutakoari jarraikiz, behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak.

4. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatulako "D" APARTATUAn xedatutakoari atxikiko zaio.

5. GAUZATZEKO EPEA

Lanak gauzatzeko epea Agiri honetako Karatularen "I" APARTATUAn adierazitakoa izango da, baina horrek ez du esan nahi lan horiei ekiteko data kontratua formalizatu baino lehenagokoa izan ezin denik.

Preskripzio Teknikoen Agirian esanbidez ahalbidetzen bada lanak gauzatzeko guztizko epea murrizteko aukera, edo epe partzialak ezartzen badira, edo jarduerak antolatzen badira, horrela eskaintzen edo zehazten badira nahitaez bete beharrekoak izango dira, hurrenez hurren.

Karatularen "N" APARTATUAn horrela aurreikusi bada, kontratua amaitzean, bi aldeak ados jarrita, kontratua luzatzea erabaki daiteke prestazioak errepikatzeko asmoz, hasieran aurreikusitakoaren pareko beste aldi baterako edo epe murritzagorako, betiere denbora tarte horretan prestazio horien ezaugarriak aldatzen ez badira, lege honen 203. artikulutik 207. artikulura zehazten denaren arabera egin daitezkeen aldaketetan modifikaziorik egin gabe.

SPKLren 29.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, kontratazio-organoa izango da luzapen hori erabakiko duena, eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada, kontratua arautzen duen agiriak halakorik ezartzen ez badu behintzat. Bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak aurreabisu-betebeharretik salbuetsita daude.

6. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau lehiaketa irekiaren prozedura bidez adjudikatuko da, eta honako fase hauetan egituratuko da:

(i) lehenengo fasea ("Eskaintzak aurkeztea"): Euskadiko Kontratazio Elektronikoaren erregistro telematikoaren bitartez. https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

(ii) bigarren fasea ("Kontratista hautatzea"): UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eskaintzak ebaluatu ostean, kontratua zein lizitatzailerekin formalizatuko duen hautatuko du;

(iii) hirugarren fasea ("Formalizatzea"): UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eta hautatutako lizitatzaileak kontratua sinatuko dute.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa eta kontratista informazioaren konfidentzialtasun betebeharrari atxikiko zaizkio, agiri honetan zehaztutako baldintzetan.

Kontratazio organoa karatularen "B" APARTATUAn adierazitakoa da.

II. KAPITULUA
LIZITAZIOA ETA ESKAINTZAK PRESTATZEA

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko epea Karatularen "E" APARTATUAn adierazitako egunera eta ordura arte egongo da zabalik.

Eskaintzak elektronikoki aurkeztuko dira, Euskadiko Kontratazio elektronikoaren erregistro telematikoaren bitartez. https://www.contratacion.euskadi.eus/informazio-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileak emandako zerbitzu enpresa sailkapena badute, Karatula honen "K" APARTATUAn aurreikusitakoari jarraikiz. Inguruabar horiek betetzen direla egiaztatzeko, Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) erabili behar da beti eta kasu guztietan.

Halaber, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte SPKLaren arabera aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteek ere. Elkartea osatzen duten enpresetako bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko ditu; horretarako, hurrengo klausuletan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu eta honako datu hauek adierazi dokumentu pribatu batean (II. ERANSKINA): proposamena izenpetzen duten enpresen izenak eta egoera, bakoitzaren parte-hartzea, kontratuaren indarraldian UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren aurrean elkarteko enpresa horien guztien erabateko ordezkaritza izango duen pertsona edo erakundea, eta Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa (HAKLAOaren 24. artikulua). Elkartea osatzen duten enpresa guztietako ordezkariek sinatuta egon beharko du dokumentu horrek.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina proposamen bakar horretan nahi adina aukera edo aldaera bil daitezke, betiere Agiri honetako Karatularen "J" APARTATUAn aurreikusitako baldintza eta betekizunen arabera.

Eskaintza bat aurkeztuz gero, enpresak agiri honetan aipatzen diren Klausulak eta gainerako kontratu agiri guzti-guztiak (salbuespenik gabe) baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du; horrekin batera, aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena ere egin beharko du.

Konfidentzialtasuna: Beharrezko iritziz gero, lizitatzaileak I. ERANSKINeko ereduaren arabera adierazi ahal izango du, bere ustez, karpetetan dagoen eskaintzaren zein informazio eta zein alderdi diren konfidentzialak sekretu teknikoekin edo komertzialekin lotura dutelako, eta lotura hori justifikatzen duten arrazoiak azaldu beharko ditu. Egindako eskaintza ekonomikoa ezin izango da, inolaz ere, konfidentzialtzat hartu. Hirugarren baten lizitazio proposamen bateko dokumentazioa eskuratzeko

eskaera eginez gero, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak balioetsiko du lizitatzaileak egindako konfidentzialtasun adierazpena bidezkoa ote den.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA

Eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkeztuko dira, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izena duen aplikazioaren bitartez; aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMAn kokatuta dago.

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak argitzeko edo gorabeherak konpontzeko laguntza zerbitzua: 945016298.

Hona hemen erabiltzeko baldintzak:

1. Baldintza administratiboak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikoak egiteko baimendutako ziurtagiri digital bat izatea. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria) - e-NANa
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra; oso jende gutxi sartu da aplikazioan ziurtagiri horiek erabilita)

b) Egoera hauetakoren bat betetzea:

- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta hartuta egotea eta indarreko ziurtagiria izatea
- Alta hartuta egotea aldi baterako gaikuntza sisteman
- Bi operadore ekonomikok edo gehiagok batera parte hartzen badute eta adjudikaziodun izanez gero formalki ABEE bat eratzeko konpromisoa hartu badute:

ABEEaren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar du

Aurkezteko modua:

Dokumentu bat irakurri eta izapidetuko dela bermatu ahal izateko, honako luzapen hauetako batekin gordeta egon beharko du: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, jpg, .bmp, .tiff,.zip, eta Jz

Birusen presentziak sistemaren operatibotasunean ahalik eta eragin txikiena izatearren, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da. Eskaintza epearen barruan jasotakotzat joko da baldin eta epearen barruan hasi bada aurkezteko izapideak egiten eta prozesua ongi burutzen bada.

Aplikazioan agertzen diren gutun-azaletan honako dokumentu hauek txertatu behar dira.

A. **Gaitasunari eta kaudimenari dagokion gutun-azala**. Jarraian adierazten diren dokumentuak aurkeztu behar dira:

1. Europako Kontratazio Agiri Bakarra, beteta

2. "III. eranskina - Ingurumen konpromisoaren adierazpena", beteta

3. "IV. eranskina - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako konpromisoaren adierazpena", beteta

I. eta II. eranskinak honako kasu hauetan baino ez dira bete behar: bankuaren abala behar denean, konfidentzialtasun klausulak ezartzen direnean eta aldi baterako enpresen elkartea eratzen denean.

Gaitasunari eta kaudimenari dagokion gutun-azalean ez da proposamen ekonomikoarekin lotutako ezer ere sartu behar. Horrelakorik sartuz gero, eskaintza ez da onartuko eta lizitazio prozesutik kanpo geratuko da.

B. **Balio judizioei dagokien gutun-azala**. "Proposamen teknikoa" sartu behar da. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari proposamen teknikoak agiriaren karatulan zehazten diren balioespen irizpideen arabera balioesteko aukera emango dion dokumentazio guztia txertatu beharko dute lizitatzaileek proposamen teknikoetan.

Balio judizioei dagokien gutun-azalean ez da proposamen ekonomikoarekin lotutako ezer ere sartu behar. Horrelakorik sartuz gero, eskaintza ez da onartuko eta lizitazio prozesutik kanpo geratuko da.

C **.Formulei dagokien gutun-azala**. "Proposamen ekonomikoa" sartu behar da (ereduaren araberakoa). Aurkeztutako eskaintza bakoitzerako proposamen bakarra izango du, dela oinarria izan, dela lizitatzaileak aurkez ditzakeen aldaera edo aukerak izan, Agiriko Karatularen 'J' APARTATUAn horrelakorik aurreikusiz gero. Eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartu behar dira, aplikatu beharreko edozein zerga edo gastu ere barnean hartuta, **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne.**

Zifra bidez eta letra bidez adierazitako kopuruak ez badatoz bat, letra bidez adierazitakoa gailenduko da.

III. KAPITULUA
ADJUDIKAZIODUNA HAUTATZEA, ADJUDIKAZIOA EGITEA ETA FORMALIZATZEA

9. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, gaitasunari eta kaudimenari dagokien gutun-azala irekiko da elektronikoki, eta lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da, SPKLaren baldintzen arabera.

Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) ez bada aurkezten edo osatu gabe aurkezten bada, lizitatzailea ez da onartuko. Akats material bat gertatu bada, hiru (3) egun balioduneko epea emango da akatsa zuzentzeko HAKLAOaren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izapide horri dagokion komunikazioa posta elektronikoz egingo da, lizitatzaileak eskaintzan adierazitako helbidera mezu bat bidalita.

Hala badagokio, EKABaren akatsa zuzendu ostean, balio judizioei dagokien gutun-azala irekiko da elektronikoki. Eskatutako kaudimena badutela adierazi duten eskaintza-egileen eskaintza teknikoak teknikari arduradunaren esku geratuko dira, onartutako proposamen bakoitzeko dokumentazioa modu objektibo eta inpartzialean balioetsi ahal izateko agiriaren karatulan erabakitako adjudikazio irizpideen arabera.

Aurreko jarduketa horiek burututakoan, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko sistema bidezko Kontratazio Mahaiak formulei dagokien gutun-azala irekiko du Kontratatzailearen profilean jakinaraziko den egunean eta orduan.

Lizitazioaren oinarri aurrekontua gainditzen duten proposamenak automatikoki baztertuko dira.

Formulei dagokien gutun-azala (eskaintza ekonomikoa) ireki ostean, formula horiek lizitatzaile bakoitzari balio judizioen arabera egindako balioespen txostenarekin batera hartuko dira aintzat.

10. KONTRATISTA HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA KONTRATISTA HAUTATZEA

Eskaintzak balioesteko oinarrizko irizpideak Karatularen "L" APARTATUAn aipatzen dira.

Normalak ez diren edo neurriz kanpoko balioak dituzten eskaintzei dagokienez, Karatularen "L" APARTATUAn aipatzen dena bete beharko da.

Bi proposamenen edo gehiagoren artean berdinketa izanez gero, SPKLaren 147. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

Kalitate-prezio erlazio hoberena duen eskaintza egin duen pertsona balioesteko eta hautatzeko gehieneko epea bi (2) hilabete izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

Epe hori igaro eta erabaki horren berri eman ez bada, egoki iritziz gero, lizitatzaileek proposamena atzera botatzeko asmoa adierazi ahal izango dute.

Kalitate-prezio erlazio hoberena duen eskaintza egin duen pertsona hautatu ostean, eta kontratua formalizatu baino lehen, lizitatzaile horrek eta, hala badagokie, gaitasunen kontrako errekurtsoa egin zaien pertsonek SPKLaren 150. artikuluan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioan, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean:

a) Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB) adierazitako kaudimenaren aldez aurreko eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.
b) Eskaintza sinatu duen pertsonaren NANa.
c) Estatutuak eratzeko eta, hala badagokio, aldatzeko eskriturak, Merkataritza Erregistroan edo aplikatu beharreko araudiaren arabera erregistratu behar diren erregistroan erregistratutakoak.
d) Lizitatzaileak ordezkari baten bidez badihardu, ordezkaritza existitzen dela eta lizitatzeko ahalmena baduela egiaztatzen duen dokumentua.

Eskakizuna ezarritako epean betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta.

Enpresa lizitatzailea Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko datu base nazionalean erregistratuta badago, enpresaren espediente birtual gisa, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistema gisa edo aurrekalifikazio sistema gisa, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak haiek doan eskuratzeko aukera badu, ez du aipaturiko leku horietan jasota dauden datuen frogagiririk edo bestelako egiaztagiririk aurkeztu behar izango.

Gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua gauzatzeko unean ere betetzen jarraitu behar da.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak, kontratazio organoaren ebazpen bidez, dokumentu horiek jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunetan adjudikatuko du kontratua. Adjudikazioak SPKLaren 151. artikuluan aipatzen diren alderdi guztiak bete beharko ditu; horretaz gain, adjudikazio hori arrazoitu egin beharko da, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie jakinarazpena (posta elektronikoaren bidez) helarazita eta, hala badagokio, kontratatzailearen profilean argitaratuta.

Kontratua formalizatu baino lehen, adjudikaziodunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

e) Zerga betebeharrak:

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egindakoa, zerga betebeharrak beteta dituela adierazten duena; edo Administrazio horretan aitorpena aurkeztera behartuta ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

- Ziurtagiri positiboa, Foru Ogasunek egindakoa, zerga betebeharrak beteta dituela adierazten duena; edo aitorpena aurkeztera behartuta ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

- Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzak egindako ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela adierazten duena, edo salbuespenen bat izatearen erantzukizunpeko adierazpena; eta lana egin behar duen pertsonaren Gizarte Segurantzako altaren ziurtagiria.

g) Ekonomia jardueren gaineko zerga:

- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta hartuta egotearen eta zerga ordainduta izatearen egiaztagiria; horretarako, azken ekitaldiko ordainketa gutunaren kopia aurkeztu behar da. Zerga ordaintzetik salbuetsita egonez gero, salbuespena egiaztatzen duen adierazpena aurkeztu behar da.

h) Aseguru etxeak egindako ziurtagiri bidez honako hauek egiaztatzea:

- Karatularen "P" APARTATUAn biltzen diren baldintzei dagozkien aseguruak indarrean daudela, aseguruen estaldura eta egokitasuna.

i) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria:

- Karatularen "H" APARTATUAn horrela aurreikusita baldin badago. Bermea I. ERANSKINean dagoen ereduaren araberako banku abal bidez eratuko da; abalaren jatorrizko alea UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioan gordeko da.

j) ABEEa eratzeko eskritura:

- Betiere hautatutako kontratista hori izanez gero, eta elkarteari esleitutako IFZ.

11. KONTRATUA FORMALIZATZEA

SPKLaren 153.3 artikuluari jarraikiz, kontratua formalizatuko da zortzi (8) egun balioduneko epean, aukeratuko pertsonari eta gainerako lizitatzaileei jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, baldin eta erregulazio harmonizatuaren menpe dagoen kontratu bat ez bada edo kontratu arloko errekurtso berezirik jarri ez bada. Erregulazio harmonizatuaren menpeko kontratuen edo kontratu arloko errekurtso berezi bat jaso duten kontratuen kasuan (100.000 eurotik gorako balioa duten kontratuetan), ezin izango dira hamabost (15) egun baino gutxiagoetan formalizatu.

Kontratua formalizatuta, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak kontratuarekin ados dagoela adierazten du, eta kontratua egindakotzat jotzen da.

Lizitatzaileari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ez bada formalizatzen, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eratu ahal izan den behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du edo, bestela, lizitatzaileak kalte-ordaina emateko eskubidea izango du, betiere kontratuaren aurrekontuaren 100eko 3, gehienez.

Kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, eta hautatutako pertsonaren kargu geratuko dira formalizatzearen ondoriozko gastu eta zerga guztiak. Alderdietako edozeinek eska dezake eskritura publikoa eratzea, eta hori eskatzen duen alderdiak ordaindu beharko ditu eraketa horrek eragindako gastuak.

IV. KAPITULUA
KONTRATUA GAUZATZEA ETA AZKENTZEA

12. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua kontratuko klausuletan eta agirietan xedatutakoaren arabera gauzatuko da, eta kontratazio organoak edo organo horrek eskuordetutako pertsonak edo kontratuaren arduradunak kontratua interpretatzeko kontratistari emandako jarraibideei jarraikiz.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan oinarrituta gauzatuko da.

Egindako lanen eta eskainitako zerbitzu eta prestazioen kalitate teknikoa kontratistaren erantzukizuna izango da, baita kontratua gauzatzean izandako ez-egiteek, erroreek, metodo desegokiek edo ondorio ez-zuzenek UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari eragindako ondorioak ere.

Kontratistak kontratuan zehaztuta ez dagoen edo kontratazio organoak nahiz kontratuaren arduradunak aldez aurretik baimendu ez duen lanen bat egiten badu, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak ez du lan hori ordainduko.

Lanak amaitutakoan, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak lanen ebaluazioa egingo du eta hornitzaileari ebaluazio horren berri emango dio ixteko bileran. Alderdi hauek balioetsiko dira: espero zena bete ote den, erritmo eta epeak, hornitzailearen proaktibitatea eta gogobetetzea, oro har. Ondorio gisa, gutxienez indargune bat eta hobetzeko arlo bat nabarmenduko dira.

13. KONTRATUA ALDATZEA

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak kontratua aldatu ahal izango du SPKLaren 205. artikuluan finkatutako arrazoi tasatuengatik.

Kontratu aldaketen prezioa modu bi aldeak ados jarrita zehaztuko da, kontratistak eskainitako prezioak aintzat hartuta.

14. PREZIOA ORDAINTZEA

Karatularen "D" APARTATUAn prezioa ordaintzeko modua finkatu da, betiere UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak lanekiko adostasuna adierazi ostean eta dagokion faktura bidalita. Ezin izango da, inolaz ere, ordainketarik egin harik eta kontratua formalizatzen ez den arte.

Kontratistak ez du izango hobekuntzak kobratzeko eskubiderik, baldin eta hobekuntza horiek kontratuaren arduradunaren esanbidezko baimenik gabe egin baditu.

Kontratistak Agiri honetan aurreikusitako kasuak betetzeagatik jasan behar dituen zigorrak preziotik kentzeko eskubidea izango du UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak.

15. EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIK EDO OKER BETETZEAGATIK JARRITAKO ZIGORRAK

Kontratista kontratua betetzera behartuta dago, betiere Karatulan horretarako zehaztutako epeak betez, eta proposamen teknikoarekin aurkeztutako Lan Plana ere bete beharko du.

Kontratista edozein epetan berandutzeak ez dakar aurrez abisatu beharrik UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren aldetik. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak zigorrak ezar ditzake atzerapen horien ondorioz, egin gabe dauden ordainketetan deskontua eginez; Karatularen "M" APARTATUAn finkatuta daude zigorrak.

Azken epea amaitu bada edo ezarritako epe partzialen baten muga-eguna iritsi bada eta kontratista berandutu egin bada hari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla eta, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak azkenean adostutako preziotik % 10eko zigorra deskontatu ahal izango du egin gabe dauden ordainketetatik edo kontratistari erreklamatu ahal izango dio deskontu hori.

Emandako zerbitzuak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin kontratistari lepora dakizkiokeen akats, gabezia edo okerrengatik, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak zerbitzu horiei uko egin ahal izango die eta ez du ordaintzeko betebeharra bete behar izango; halaber, kontratua suntsiarazteko aukera ere izango du eta kontratistak azkenean adostutako prezioaren % 10eko zigorra ordaindu beharko du.

Zigorren zenbatekoa ordaindu behar izateak ez du esan nahi UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak ez duenik eskubiderik kontratista berandutu izanaren ondoriozko kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzeko; era berean, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak kontratua suntsiaraztea eskatzeko eskubidea ere izango du.

16. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Lan baldintzak

a) Kontratistak honako betebehar hauek ditu adjudikatutako lana egiteko baliatzen dituen langileei dagokienez: lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, segurtasunaren arloan, desgaituak gizarteratzearen arloan eta lan arriskuen prebentzioaren arloan (eta, horren barruan, gizarte prestakuntzan) indarrean dagoen araudia zehatz-mehatz betetzea; halaber, azpikontratatutako pertsonak –hala badagokio– langileei dagokienez lan arloan indarrean dagoen araudia betetzeko konpromisoa hartzen du, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak ez du inolako errurik izango kontratua gauzatzeagatik arlo horiekin loturik gertatzen diren gorabeheren ondoriozko erreklamazioen kasuan.

b) Kontratistak langile guztiei eman behar dizkie norbera babesteko ekipo homologatuak, betiere kontratuaren xede diren lanetarako egindako arriskuen azterketatik ondorioztatutako lan arriskuen prebentzioko planaren arabera aplikatu beharreko ekipoak izanik, eta langileek ekipo horiek erabiltzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso dutela ziurtatu behar du.

c) UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eskatuz gero, dokumentatuta egon behar duten edo egon daitezkeen betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du kontratistak.

Kontratistaren betebeharrak zerbitzua emateari atxikitako langileei dagokienez

1. Zerbitzua emateari atxikitako langileak kontratistaren mendeko izango dira, ez beste inoren mendeko; kontratista izango da enplegu-emaile izateari dagozkion eskubide eta betebeharren erantzule bakarra.

2. Kontratistari dagokio, ez beste inori, kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldea osatuko duten langileak hautatzea; langile horiek agirietan eskatzen diren tituluen eta esperientziaren baldintzak bete beharko dituzte (titulazioari eta esperientziari buruzko baldintza bereziak finkatzen diren kasuetan), eta "erakunde kontratatzaileak" egiaztatu ahal izango du baldintza horiek betetzen direla.

3. Kontratistak lantaldean egonkortasuna izateko ahalegina egin behar du eta, ahal dela, kideen aldaketak puntualak eta justifikatutako arrazoiek eragindakoak izan daitezen, betiere zerbitzuaren funtzionamendu egokian gorabeherarik ez izateko (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak badirenean); «erakunde kontratatzaileari» aldaketa guztien berri eman beharko dio.

4. Kontratistak bere gain hartzen du enpresa orori dagokion zuzendaritza ahalmena baliatzeko betebeharra, kontratua betearazteaz arduratuko den lantaldeko kideei dagokienez eta modu eraginkor, jarraitu eta egiazkoan. Zehazki, honako eginbehar hauek hartu behar ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimen, lizentzia eta oporrak ematea; baja edo absentzia kasuetan langileen ordezkoak ekartzea; Gizarte Segurantzarekiko legezko betebeharrak eta, hala dagokionean, prestazioak eta kotizazioak ordaintzea; lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina ahala baliatzea, eta alde enplegatuaren eta alde enplegu-emailearen arteko kontratu bidezko loturaren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak.

5. Kontratua gauzatzeari atxikitako langileek beren eginkizunen mugak gainditu gabe jardun dezaten zaindu behar du kontratistak, Agirietan kontratuaren xedetzat zehaztutako jarduerei dagokienez.

Kontratistak bere egoitza edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, baldin eta Baldintza Teknikoen Agirian edo Agiriaren Karatulan aurreikusita ez badago zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten ente, organismo edo erakundeen egoitzetan eman behar direla, eta esanbidez horretarako baimena ematen bada. Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak lanerako guneak eskainiko dizkio kontratistari, langile publikoek okupatzen dituzten guneekiko bereizita, eta kontratistari dagokio zerbitzu horiei atxikitako langileek esleitutako kokapena errespetatzen dutela zaintzea. Kontratuaren xedea dela eta, zerbitzuak sektore publikoa osatzen duten erakunde kontratatzaileen languneetan kokatutako ondasun edo instalazioetan eman behar badira modu jarraituan, kontratistak, gainera, kontratua gauzatzeari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan alta hartuta eta afiliatuta daudela egiaztatu beharko du, zerbitzuak emateari ekin aurretik.

Ingurumenaren arloko baldintza orokorrak

Kontratistak ahal duena egin behar du bere jardunek edo bere azpikontratisten jardunek natura ingurunean edo animalia nahiz landareen bizitzan inpaktu negatiborik izan ez dezaten, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu jardun horietan sor litekeen gorabehera oro indargabetzeko edo ahalik eta gehien murrizteko.

Lanak gauzatzen diren bitartean, kontratistak "INGURUMEN ADIERAZPENEAN" zehaztutako konpromisoak bete behar ditu.

Emakumeen eta gizonen berdintasuneko baldintza sozialak

Lanak gauzatzen diren bitartean, kontratistak "EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENEAN" zehaztutako konpromisoak bete behar ditu.

Hizkuntza baldintzak

Kontratu baten xedean zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin nahiz herritarrekin, oro har, harremanak izatea sartzen baldin bada, kontratua gauzatzeaz arduratzen den enpresaren eta erabiltzaileen edo kontratua gauzatzean harremanetan jarri beharreko pertsonen arteko komunikazioan –ahoz zein idatziz– erabiliko den hizkuntza erabiltzaileak edo hirugarrenak aukeratuko du, kasuan kasu.

Aukerarik adierazi ez denean berariaz, adjudikazioaz arduratzen den enpresak pertsona fisiko eta juridikoei zuzendutako mota guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan izango dira, herritarrek edozer unetan hizkuntza aukeratzeko eta bi hizkuntza ofizialetako bakar bat baliatzeko duten eskubideari kalterik eragin gabe.

Hirugarrenen baimenak

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak hainbat kontratu eta kudeaketa bere kabuz egin behar dituela erabakitzen badu ere, kontratista lana egoki gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortzeaz arduratuko da partikular, elkarte, enpresa eta erakundeen aurrean. Baimen horiek eskuratzeak izan dezakeen kostua, hala badagokio, kontratistaren gain geratuko da, ez beste inoren gain.

Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat jotzen da kontratatutako zerbitzua emateagatik kontratistak lor dezakeen edo jakin dezakeen informazio guztia (pertsonala, kontratuei buruzkoa, bankuei buruzkoa, teknikoa eta/edo merkataritzakoa).

Informazio konfidentzial guzti-guztia konfidentzialki tratatzeko konpromisoa hartzen du kontratistak, baita agiri honetan deskribatutako helburuetarako soilik erabiltzekoa ere, eta ez die hirugarrenei informazio horren berri emango, ez du jendearen eskueran jarriko eta ez du publiko edo irisgarri jarriko inolaz ere.

Kontratistak informazio horren gaineko konfidentzialtasun zorrotzenari eusteko konpromisoa hartzen du, eta konfidentzialtasunaren eta sekretuaren eginbeharraren berri emango die bere langileei, bazkideei eta kontratistarekin harremana duelako informazio hori eskuratu behar duen edozein pertsonari, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioarekin sinatutako kontratuaren ondoriozko betebeharrak egoki betetze aldera.

Kontratatutako zerbitzua emateagatik UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako informazio konfidentzialari dagokionez, kontratistak edo aurreko paragrafoan aipatu diren pertsonek ezin izango dute informazio hori erreproduzitu, aldatu, publiko egin edo hirugarrenei zabaldu.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak aldez aurretik baimenik ematen ez badio, kontratistak ez du jasotako dokumentu edo elementurik kopiatuko, ez erreproduzituko (baldin eta informazio konfidentziala baldin bada edo baldin badu, zati batean edo osorik), betiere zerbitzua emateko beharrezkoa ez bada.

Kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak aintzat hartuta, kontratistak dokumentu edo elementu horiek itzuliko ditu, hala badagokio, baita horien kopiak ere, baldin badaude, eman zizkionak eskatzen badio eta, beranduenez, kontratatutako prestazioa amaitzean.

Betebehar hori ez bada betetzen, legedian lizitatzaileari esleitzen zaizkion erantzukizunez gain, eragin ahal izan zaizkion kalteak eta galerak adjudikaziodunari erreklamatzeko eskubidea izango du UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak.

Datu pertsonalen tratamendua

Zerbitzu profesionalen zerrenda hau mandatuz egindako datu pertsonalen tratamendua da, eta ERAKUNDE KONTRATISTA da tratamenduaren arduraduna, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/EE Zuzentaraua –Datuak babesteko erregelamendu orokorra– indargabetzen duena) eta datu pertsonalak babesteari buruz aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera.

Tratamenduaren arduradunaren jarraibideak

Kontratu mota eta kontratuaren nondik norakoak aintzat hartuta, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren aginduari jarraikiz ERAKUNDE KONTRATISTAK tratatzen dituen datu pertsonalak kontratu horren xede den helburua betetzeko baino ez dira erabiliko. Informazio hori UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren jarraibideen arabera tratatuko da, ez beste inola.

Konfidentzialtasunaren betebeharra

Tratamenduaren arduradun den aldetik, ERAKUNDE KONTRATISTAk zera bermatu behar du, datu pertsonalak tratatzeko baimena dutenek konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa esanbidez hartzen dutela, eta kontratuaren xedea amaitu ondoren ere sekretuaren eginbeharrari eutsiko diotela. Betebehar hau betetzea dokumentatuta dago, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren eskura. Ez zaizkie datuak hirugarrenei jakinaraziko, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak esanbidez baimenik ematen ez badu.

Segurtasun neurriak

ERAKUNDE KONTRATISTAk esanbidez adierazi du honako hauetarako neurriak hartu eta ezarri dituela:

- Tratamendu sistemen eta zerbitzuen etengabeko konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko.
- Datu pertsonaletarako irisgarritasuna eta sarbidea lehenbailehen leheneratzeko, gorabehera fisiko edo teknikoren bat izanez gero, betiere ezinbesteko kasua ez bada.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna maiz egiaztatzeko, ebaluatzeko eta balioesteko. - Datu pertsonalak zifratzeko eta datu horien ordez pseudonimoak jartzeko, hala badagokio.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioarekin elkarlanean jardutea betetzen dela egiaztatzeko

ERAKUNDE KONTRATISTAk datu pertsonalen babesarekin lotutako betebeharrak betetzen dituela frogatzeko beharrezkoa den informazio guztia UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari eskainiko dio, eta harekin lankidetzan jardungo du.

Azpikontratazioko araubidea

ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK datu pertsonalen tratamendua dakartzaten eta kontratu honen xede diren prestazioak ez azpikontratatzeko konpromisoa hartzen du esanbidez, betiere zerbitzuen funtzionamendu egokirako behar-beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak salbuetsita.

Tratamenduren bat azpikontratatu behar bada, aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko zaio UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari, 10 egun baliodun lehenago. Era berean, azpikontratatu nahi diren tratamenduak adieraziko dira, eta azpikontratatutako enpresa eta harekin harremanetan jartzeko datuak argi eta garbi identifikatuko dira. Azpikontratazioa egin ahal izango da UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak kontrakorik esaten ez duenean ezarritako epearen barruan.

Tratamenduaren arduradun ere baden aldetik, azpikontratistak dokumentu honetan tratamenduaren arduradunari emandako betebehar guztiak bete beharko ditu, baita UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak emandako jarraibideak ere.

ERAKUNDE KONTRATISTAri dagokio (tratamenduaren hasierako arduradun den aldetik) erlazio berria arautzea, arduradun berria haren baldintza (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun neurriak...) eta eskakizun berberen menpe gera dadin, datu pertsonalean tratamendu egokiari eta eraginpeko pertsonen eskubideen bermeari dagokienez.
Azpiarduradunaren ez-betetzea gertatuz gero, ERAKUNDE KONTRATISTAk erabateko ardura izango du, oraindik ere, tratamenduaren arduradunaren aurrean, betebeharrak betetzeari dagokionez.

Interesdunen eskubideak

ERAKUNDE KONTRATISTAk UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari laguntzeko konpromisoa hartzen du, honako eskubide hauek baliatu ahal izateko:

- Eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubidea.
- Tratamendua mugatzeko eskubidea.
- Datuak eramateko eskubidea.
- Banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea (profilen egitea barnean hartuta).

Interesdunek goian aipatutako eskubideak baliatzen dituztenean ERAKUNDE KONTRATISTAren aurrean, hark UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioari jakinaraziko dio berehala, eskaerari erantzuteko garrantzitsua den informazioarekin batera.

Datuekin zer gertatuko den harremana bukatzen denean

Mandatu honen ondorioz tratatzen dituen datu pertsonalak suntsitzeko konpromisoa hartzen du ERAKUNDE KONTRATISTAk, prestazioa burututakoan. Dena den, kopia bat gordetzeko baimena eskatu beharko du idatziz, eta kopia hori behar bezala blokeatuta izango du prestazio hori gauzatzetik erantzukizunak ondorioztatu daitezkeen bitartean.

Lagapena eta azpikontratazioa.

a) Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematea ezin izango zaio hirugarren bati laga, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan direnean, eta lagapenaren ondorioz merkatuan lehia benetan murrizten ez denean. 2. paragrafoko b) idatz-zatian ezarritakoari kalterik egin gabe, lagapena ezin izango zaio baimendu hirugarren bati, baldin eta horrek kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen baditu, baldin eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementu bat badira. Eta lagapen hori egin ahal izateko, kontratazio-organo batek egiaztatu behar izateaz gain, baldintza hori ez dela betetzen, AKPPren karatula espezifikoan zalantzarik gabe aurreikusi beharko da, eta, gutxienez, AKPPren SPKLren 214. artikulua.

b) Lizitatzaileak eskaintzan beharko du zein kontratu-zati azpikontratatu nahi duen, baldin eta kontratuaren gauzatzea zatitan zatitu badaiteke eta irizpide-batasunaren arrazoiengatik ezin bada zatitan banatu, eta enpresa bakar batek erantzun eta azpikontratatutako alderdien betearazpena ikuskatzen badu., SPKLaren 215.2.a) artikuluan aurreikusitako datuak adierazita kaudimen profesionala eta teknikoa egiaztatzearren; horretarako, Europako Kontratazio Agiri Bakarrean dagokion apartatua bete beharko du. SPKLaren 140.1. c) artikuluaren arabera, enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duen kasuetan, SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Adierazpen horretan, kasu hauetarako behar den informazioa jasoko da, hurrengo artikuluak aipatzen duen Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuari jarraituz.

c) Adjudikaziodunak agiri honen xede diren zerbitzu batzuk azpikontratatzea onargarria izango da, nahiz eta eskaintza aurreko atalen arabera ez txertatu, betiere UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak aldez aurretik baimena emanez gero.

17. EGINDAKO LANEN JABETZA, ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Egindako lanak UPV/EHUko Uda Ikastaroak SA Fundazioarenak dira, edozein fasetan.

Agiri honetan aurreikusitako kontratazioaren bitartez, egun indarrean dagoen legedian aurreikusitako eperik luzeenerako, kontratatutako lanek eragin dezaketen obraren jabetza industrial eta intelektualaren eskubide guztiak (aplikazio industriala edo ustiapen ekonomikoa izan dezaketenak) hartzen ditu bere gain UPV/EHUko Uda Ikastaroak SA Fundazioak.

Eskubide horiek benetan eskuratzeko edo jendaurrean jasota geratuko direla bermatzeko UPV/EHUko Uda Ikastaroak SA Fundazioak eskatutako dokumentu guztiak sinatzeko konpromisoa hartzen du kontratistak.

Kontratistak kontratuaren xede diren lanak egitearekin lotutako dokumentazioa, diseinuak, irudiak, jasotako informazioa edo datuak erabili nahi baditu, UPV/EHUko Uda Ikastaroak SA Fundazioak baimena eman beharko dio aldez aurretik eta idatziz.

18. KONTRATUAREN ARDURADUNA

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, eta SPKLaren 62. artikuluan aipatzen diren ikuskaritzako eta aholkularitzako eginkizunak izango ditu.

19. KONTRATUA AZKENTZEA/SUNTSIARAZTEA

Hasieran aurreikusitako epea betetzean kontratua azkendu egingo da.

Hona hemen kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

- SPKLaren 211. eta 313. artikuluetan aipatzen direnak,
- prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan ematea ezinezkoa izatea, kontratua 204. eta 205. artikuluen arabera aldatu ezin denean,
- azpikontratazioari dagozkion betebeharrak ez betetzea,
- Kode Zibilean aipatzen direnak.

20. GATAZKAK, EKINTZAK ETA ERREKURTSOAK EBAZTEKO PROZEDURAK, ETA HORIEK EBAZTEKO ORGANO ETA ORGANISMOAK.

SPKLaren 27. artikuluaren arabera, kontratuen prestaketa, adjudikazioa eta aldaketa direla-eta sortzen diren gatazkak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako organo jurisdikzionalek ebatziko dituzte; ondoreei, betetzeari eta azkentzeari buruzko gatazkak, aldiz, jurisdikzio-ordena zibileko organoek ebatziko dituzte.

Jurisdikzio bidera jo aurretik, eta betiere SPKLaren 44. artikuluko betekizunak betetzen badira, kontratazio arloko aukerako errekurtso berezia aurkeztu ahal izango da EAEko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoan; baina 44.5 artikuluarekin bat etorriz gero, ezin izango da bestelako administrazio errekurtsorik aurkeztu.

SPKLaren 44.6 artikuluari jarraikiz, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak egiten dituen jarduketen kasuan, SPKLaren 44. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren betekizunak betetzen ez badituzte, erakunde hori Administrazio Publikoa ez den botere adjudikatzailea izaki, jarduketa horiek bide administratiboan aurkaratu ahal izango dira 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko errektoreari gora jotzeko errekurtsoa aurkeztuta; izan ere, UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa unibertsitate horri atxikita baitago, eta haren tutoretzapean baitago (administrazio doktrinaren zati handi baten arabera, gora jotzeko horrelako errekurtsoei "gora jotzeko errekurtso inpropioa" esaten zaie, informalki).

SPKLaren 60. artikuluaren arabera, errekurtsoa ebazteko organo eskudunaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten denean, organo hark, espediente administratiboa erreklamatze aldera auzitegi jurisdikzionalak egindako diligentzia jaso ondoren, errekurtsoaren xede izan den egintzaren egile den kontratazio organoari eta prozeduran agertu beharreko gainerako guztiei deituko die kasuko salara. Goiko paragrafoan aipatzen den dei hori 29/1998 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako moduan egingo da (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena).

21. USTELKERIAREN AURKAKO KLAUSULA

1. Lizitarioaren edo kontratuaren sutsiarazpenaren edozein egoeratan eskaintzari uko egiteko arrazoi erabakigarria izango da honako helburuekin dirua edo beste edozein emari ematea edo eskaintzea:
    a. Lizitazio edo kontratu baten gaineko eskuma duten UPV/EHUko UDA IKASTAROA FUNDAZIOko langileek haien eginkizunak egitea edo ez egitea;
    b. Edo haien karguaren eragina balia dezaten UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOko beste langile baten aurrean, adierazitako eskumenarekin, haien eginkizunen inguruko zerbait egin dezaten edo ez dezaten egin;
    c. Edonork UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOko langile batekin duen harremana baliatzea, adierazitako eskumenarekin, haren eginkizunen inguruko zerbait egin dezaten edo ez dezaten egin.

    Jokabide horren subjektu aktibotzat hartuko dira kontratistaren intereserako ekintza horiek zuzenean edo zeharka egin dituztenak, izan ordezkari, administratzaile, bazkide, agintari, kudeatzaile, faktore, langile, kontratatu, negozio-kudeatzaile, sindiko edo beste edozein pertsona fisiko zein juridiko.

    UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOArekin lotura duten pertsonatzat hartzen dira: lan-kontratuen bidez lotutako langileak, UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOArekin beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenen arabera lankidetzan ari direnak eta UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAri lotuta daudenak. Legez kontrako jokabide horiek ondorioak izango dituzte, saialdian bakarrik geratu badira ere.

2. UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOArekin egindako edozein kontraturi dagokionez, kontratistak bere gain hartzen eta bermatzen du:

    a. Zuzenean edo zeharka komisio edo bestelakorik eman izana, eta emango ez duela.
    b. Zuzenean edo zeharka, EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOko langile edo ordezakariren batekin komisiren bat edo beste ordaintzea hitzartu izana, eta hitzartuko ez duela.

    Kontratistak, lizitatzaileak edo haren izenean zein haren ordez jarduten dutenek, klausula honetan xedatzen dena hausten badute, UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAk kontratistarekin eta/edo, hala badagokio, haren taldeko sozietateekin egindako kontratu guztiak suntsiarazi ahalko ditu, eta ebazpen horrek eragiten dizkion kalte ekonomikoak erreklamatu ahal izango dizkio kontratistari, hargatik gauzatu daitezkeen akzio penalik eragotzi gabe.


U
I
K
UPV / EHU